

ZUEK ZAREE MUNDUKO ARGIA

1

“Zuek zaree munduko argi”
hau da Zuk dinoskuzuna,
hagaitik argi egin beharra
da gure eginkizuna.
Ilunpea besterik
Ez daukagu geurerik,
hau gu bion jarduna:
Hona hemen ni argi-mutila
eta egin nahi dozuna.

2

Jesus, Zu zara munduko argi,
ni zure argi-mutila,
onartu eizu Zeuk nahi dozunez
gure zerbitzu umila.
Zuk jarri erregaia
eta guk argizaia,
argia biztu dedila.
Zu ezagutu nahirik baletor
inor gure argi-bila.

3

Geure argirik ez daukagu ta
gatoz argi-iturrira,
zabaldu daigun geurea ez dan
Zuregandiko distira.
Zure Espirituak
barrutik argituak
zure testiguak dira.
Isur egizu zure argia
gure bihotzen erdira.

4

Zure argia geuk daroagu
buztinezko ontzietan,
erruki haundiz zaindu gagizuz
berba eta eginetan.
Ontzi garbi ta garden
Zuretzat izan gaiten,
Bizi garan tokietan.
Zure argia zabaldu daigun
gaur ontzi egokietan.

5

Asko zuzenak, egintza onak
dira hemen beharrezko,
bestelan ezin izan gu, Jauna,
Munduan zure ordezeko.
Argi eginaz urtu
eta argi biuhurtu,
dana ez da buztinezko;
Zeuk esana da: “Jainkoarentzat
ezer ez da ezinezko”.

6

Gure artea jatsi zinana
ilunpeak argitzera,
zure argitan poztu gaitезan,
hauxe da gure aukera:
Zu zaitugu zentrala,
guk emon hartu ahala;
entzun gaurko eskaera:
*“Lagun eiguzu, heldu gaitезan
betiko argi betera”.*

A. Martzel